

BIRPASATZEKO ARIKETA INTERAKTIBOAK

6. IOIAK

- ☐ Edozein elementu kimikoren atomo batek nukleoan dituen **protoi adina elektroi** ditu nukleoaren inguruan biraka; hau da, da.

$$\text{..... KOPURUA} = \text{..... KOPURUA}$$

- ☐ **galdu edo jaso** egin ditzekete atomoek.. Hori gertatzen denean, atomoak.....bihurtzen dira.

$$\text{PROTOI KOPURUA} \neq \text{ELEKTROI KOPURUA}$$

- ☐ Atomo batek **elektroiak galtzen dituen**ean, karga hartzen du eta ioi positibo edo bihurtzen da.

- ☐ Atomo batek **elektroiak irabazten dituen**ean, karga hartzen du eta ioi negatibo edo..... bihurtzen da.

39. Zein da **sufre** ioiaren ikurra, bi elektroi jasotzen baditu?

- a) S^{2+} b) S^{2-} c) S_2 d) S^2

40. Zein da **magnesio** ioiaren ikurra, bi elektroi galtzen baditu?

- a) Mg^{2+} b) Mg^{2-} c) Mg_2 d) Mg^2

41. Osatu taula hau:

Atomo neutroa	S	Al		
Trukatutako elektroiak	2 jaso ditu	3 galdu ditu	1 jaso du	2 galdu ditu
Ondoriozko ioia			Cl^-	Fe^{2+}

42. Osatu taula. Kasu bakoitzean, adierazi izena, ikurra, partikula kopuruak eta karga. Bilatu taula periodikoan behar duzun informazio guztia.

Izena	Ikurra	Z	A	Protoi kopurua	Elektroi kopurua	Neutroi kopurua	Karga
Aluminio katioia	${}^{27}_{13}\text{Al}^{3+}$	13	27	13	10	14	+3
		29	63		28		
		13			13	14	

43. Zertan dira desberdinak Na eta Na^+ ?

- Bi nukleoek protoi kopuru desberdina dute.
- Neutroi kopuru desberdina dute; hau da, haien masa atomikoak desberdinak dira.
- Na^+ ioiak elektroi bat gutxiago du Na atomoak baino.

44. Taula honetan, atomoei eta ioiei buruzko datuak ageri dira. Taulako datuak kontuan harturik, erantzun galdera hauei:

	Protoiak	Neutroiak	Elektroiak
A	9	10	9
B	9	9	9
C	9	10	10
D	10	10	10
E	11	13	11
F	11	13	10

- Ezkerreko zutabeko letretatik, zein dagozkie elementu bereko isotopoei?
- Zein letra dagozkie ioi positiboiei?
Zer karga dute?
- Zein letra dagozkie ioi negatiboiei?
Zer karga dute?